Uretako salamandra honek trebetasun harrigarrienetako bat du: buztana, gorputz-adarra, bizkarrezur-muina, garunaren zati bat, bihotza, beheko baraila eta beste organo batzuk birsor ditzake.

Animalia mikroskopiko hau munduko txikienetakoa da. Muturreko baldintzetan bizirauten dute, ozeanoaren hondotik Everesteko gailurreraino. Espazioan biziraun duen lehen animalia ere bada.

Kalteak jasaten badituzte edo gose handia badute, polipo bihurtzen dira berriro, eta birsortu egiten dira. Kontua da zientzialariek frogatu dutela birsortutako subjektua, genetikoki, aurrekoaren berdina dela.

Arrain horiek sexu bietakoak izaten dira bizitzan zehar. Denak ar jaiotzen dira, baina batzuk eme bihurtzen dira. Bi genitalak dituzte, baina eme bihurtzeko trantsizioa egiten dute alfa hiltzen denean.

Arrak dira haurdun geratu eta umeak izaten dituztenak. Emeak arraren poltsan uzten ditu arrautzak, eta 10-25 egunetan eraman ondoren, erditu egiten da.

Bederatzi hilabete ez dira ezer, animalia hauek 2 urteko haurdunaldia izan dezakete, edozein ugaztunetan handiena.

Odola 5 km-ra detektatzeko gaitasun harrigarria dute. Tanta bakar bat ere identifika dezakete 100 litro likidotan.

Lurreko intsekturik indartsuena da. Berea baino pisu handiagoko gorotz-bolak bultzatzeko gai da. Behin erregistratu zen bat bere pisua halako 1141 mugitu zuena!

ITSAS ZALDIAK

MARRAZO ZURI HANDIA

AJOLOTEA

PAILAZO ARRAINA

KAKALARDO PELOTAGILE

MEDUSA HILEZKORRA

TARDIGRADAK

AFRIKAKO ELEFANTEAK

LIVEWORKSHEETS

LIVEWORKSHEETS